



BULARREKO MINBIZIARI AURREA HARTZEKO

Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, informazio mahaia jarri zuten Trianguloan >3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-10-20**

VIII. URTEA 2.104. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



lazio Gabonetako kontzertuaren irudia, bertan Garbiñe Orbegozo ikusi daiteke abesbatza zuzentzen. HITZA

1960 URTETIK GAUR ARTE

ALEGIA 50 urte betetzen ditu aurten Txintxarri Abesbatzak; igandean ospatuko dute Txintxarri Eguna 4-5

Alokairu sozialeko 37 etxebizitza zozketatu dituzte

TOLOSA Voith-Gorostidin eraikiko dituzte; 130 etxebizitza gehiago ere iragarri ditu Udalak 2

**Tolosan
bakarrik
erregistratu
daitezke haurrak
euskaraz**

EUSKARA Erregistro liburu ofizial gehienak gazteleraz daude 6

Perretxikoak biltzeko ohitura zabalduz

LEITZA Mikologialdiaren baitan bildutako ziza eta perretxikoak sailkatu eta erakutsiko dituzte 7



TXOKOA hitza

HITZAK sarrera pare bat du

LAGUN ARO GBC ASEFA ESTUDIANTES

saskibaloitza partidarako

Urriak 24 • Igandea • 18:30ean Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak

HITZAK bi sarrera pare bat du

Tolosako Leidorren estreinatuko den **ETZI** antzezlanerako

Urriak 22 • Ostirala • 20:30ean



297 lagun artean 37 etxebizitza zozketatu dituzte

Tolosa » Voith Gorostidi eremuan eraikiko dituzte eta alokairu sozialekoak izango dira; norbanakoek eta familiek hartu dute parte.

ASIER IMAZ

Alokairu sozialeko 37 etxebizitza zozketatu zituen atzo Etxebidek Tolosako Leidor aretoan. Zerrendan 297 lagun aurkitzen zirenez, hauek 260 esku hutsik izuli zituen euren bizilekuetara.

Etxebizitza duin bat edukitzearen eskubidea, errealtatetik urrun dagoela ikusi zuten atzo Leidorre gerturatu ziren herritar gehienek.

Aretoa bildu zen jende gehiena etxebizitza gabe itzuliko zela ikusirik, Jokin Bildarratz alkatearen hitzek ez zuten poztasun dizdira berezirik eduki zozketaren aurkezpenean. Hori bai, Tolosako Udala etxebizitzaren beharra konpondu nahian dabilela argi utzi nahi izan zuen.

Baldintzak aztertzeke unea

Atzo burutu zen zozketa erabakigarria izan zen. Hala eta guztiz ere, zenbaki sarituen atzean dauden baldintzak ikusteko unea iritsi da orain. Oinarriak betetzen ez dituenak, alokairuzko etxebizitza galduko duela ere iragarri zuten.

Voith Gorostidiko etxebizitza hauek lortzeko lehenik zerrendak zabaldu zituzten. Bertan egoteko, oinarri edo baldintza batzuk bete behar ziren. Zozketaren aurretik, zerrenda osatu eta zenbakiak banatu zituzten. Atzoko zozketa hurrengo urratsa izan da, baina ez azkena. Denborarekin agian, batzuei hasierako baldintzak aldatu egin zaizkie: lan berria, soldata hobea, ... Hori aztertuko dute orain Etxebidek, itxaron zerrenda eskuan dutela. Amaitzeko, 37 etxebizitzak eraikirik aurkitzen direnean, jabeek gutunez esango zaie zein den tokatu zaie bizilekua.

37 etxebizitza lau multzotan

297 partaideak lau multzotan ba-



Leidor aretoan ehun lagun inguru elkartu ziren Etxebidek zozketan. A. IMAZ

naturik aurkitzen ziren. Denek ez zuten beraz, etxebizitza lortzeko aukera berdina.

Lehen kupoan edo multzoan, ezintasun fisikoak dituztenak aurkitzen ziren. Hauentzat bi etxebizitza egokitu zozketatu ziren.

Bigarren multzoan edo «kupo sozialean», haur txikien ardura duten guraso bakarrek familiak; genero indarkeriaren biktimak; 70 urtetik gorakoak agureak edo ezintasun psikikoak dituzten pertsonak aurkitzen ziren. Zerrenda

honetan 73 familia aurkitzen ziren eta 15 etxebizitza zozketatu ziren hauen artean.

Hirugarren multzoan, Etxebide izena emanda, lau urtetik gora daramatzatenak aurkitzen ziren. 67rentzat 10 etxebizitza zozketatu ziren.

Azken multzoan edo «kupo orokorrean», aurreko baldintzak betetzen ez zituztenak aurkitzen ziren. 149 familia edo norbanakoren artean, 10 etxebizitza zozketatu ziren.

Zozketak bere horretan ez zuen asko iraun.

Alde batetik, notarioa aurkitzen zen eta bestetik, ordenagailua eta bolatxodun poltsa. Leidorre gerturatu ziren herritarren laguntzaz, zenbakiak irteten joan ziren. Lehenik saridunen izen-abizenak esan zituzten eta ondoren itxaron zerrenda osatu zuten.

Zerrenda Tolosako udaletxean aurkitzen da eta zalantzak edo informazio gehiago nahi duenak bertara joan beharko du.

130 etxebizitza gehiagoren iragarpena

Azpiegiturak » Jokin Bildarratz esanetan hauen %40a alokairukoak izango dira; tasatuak ere egongo dira.

Alokairu sozialeko etxebizitzaren zozketa egin aurretik, Leidor aretoko ekitaldia aurkeztu zuten ordezkari desberdinek. Jokin Bildarratzek iragarpen bat egiteko erabili zuen aukera hau. Lehenik ordea, zortetik onena opa nahi izan zien denek.

«Tolosako Udalak aste honetan bertan, ostegunetik aurrera, 130

etxebizitzako beste bloke bat aurkeztuko du; modu desberdinetakoak izango diren arren, etxebizitzaren %40a alokairuan joango da. Batzuk adibidez, 35 urtetik azpikoentzat izango dira, eta besteak 70 urtetik gorakoentzat edo mugikortasun arazoak dituztenentzat zuzendukoak».

Tasatuak ere egongo direla azaldu zuen Jokin Bildarratz Tolosako alkateak. «Mezu honekin azaldu nahi duguna zera da: zorte onik ez baldin badago gaur (atzotik), ea lortzen dugun zuten beharretara egokitzen den aukeraren bat bilatzea».



Esribauak herritarren laguntza izan zuen zozketa uanean. A. IMAZ



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Topic zentroan kafetegia zabaldu dute

TOLOSA » Topic zentroak bere bigarrena egiten jarraitzen du, orain gainera, kafetegia eta guzti. Iragan asteburuan zabaldu zituen ateak gune berriak. Asteazken zehar 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik eta asteburuetan Topic-eko museorean orduetegi bera edukiko du.

Beti gazteak elkartean irteera antolatu du

TOLOSA » Amarozko Jubilatutako Elkarrekin txangoa antolatu du urriaren 30erako. Lodosara joango dira egun pasa eta prezioa 32 eurokoa izango da. Hostal Venezian bazkaldu ondoren dantza egiteko aukera ere edukiko dute. 08:45ean Zumardi Txikitik irtengo dira, Amaroztetik berriz 09:00etan.

Zuzenketa. Atzoko zenbakiaren laugarren orrian ondorengo titularrak azaltzen zen: 'Ikasturteko lehen irteeran bizikletaz ibili dira Arabako urtegiaren inguruan'. Al-bistearen berriz, Ibarrik igande honetarako prestatu duten irteeraz hitz egiten zen. Hainbatetan Raju eta Bai Euskal Herriari ekimenek, Ibarrikok, Arabako irteera asteburu honetarako antolatu dute, ondorioz, titularrak gaizki dago. Honela izango litzateke albistearen izenburu zuzena: 'Ikasturteko lehen irteeran bizikletaz ibiliiko dira Arabako urtegiaren inguruan'.

«Plazako dantzak» ikasteko aukera

Kultura » Udaberri dantza taldeak hilaren 28an 20:30ean hasiko ditu helduentzako ikastaroak.

ERREDAKZIOA

Udaberri dantza taldeak gazte zein helduentzako dantza ikastaroak antolatu ditu ikasturte honetarako ere.

Jada hirugarren urtea da eta beren helburu nagusia «plazako dantzak irakaste» dela nabarmendu dute dantza taldeko arduradunek, «hain geurea dugun erromeria giroan dantza egiteko», gaineratu dute. Horrela beraz, fandangoa eta arin-arina nahiz hain ezaguna den larrain-dantza izango dira ikastaroan zehar ikasiko dituzten dantzak.

Ikastaro honetan izena emateko epea urriko azken ostegunean itxiko da, hilaren 28an, eta bi bide izango dira izena emateko. Alde

batetik, udaberri@udaberri.com helbidera izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia bidali daitezke eta bertan lehenago euskal dantzetan aritutakoa zaren edo ez azaldu. Bestetik, urriaren 25ean, astelehena, Tolosako Kultur Etxean 17:00etatik 20:00etara jarriko duten bulegoan ere eman ahal izango da izena.

Ikastaroak urriaren 28an hasiko dira 20:30ean eta asteen behin, ostegunetan, burutuko dira.

Langileek hilean 10 euro ordaindu beharko dituzte eta ikasleek, aldi, 5 euro.



Udaberriko dantzariak. HITZA

Helduentzako dantza ikastaroak

Kultura » Eskolako ostegunetan, 20:30etik 21:30era, izango dira Amarozko Auzoetxean.

ERREDAKZIOA

Amarozko dantza taldeak helduei zuzendutako plaza dantzen ikastaro laburra eskainiko du.

Bihar bertan, hilak 21, izango da hitzordua. Amaroztean. Ikastaroabi

hilabetekoa izango da eta abenduaren 16an izango da azken eskola.

Fandangoa eta arin-arina

Saioak ostegunetan izango dira, 20:30etik 21:30era, Amarozko Auzoetxean. Ikastaro labur honetan fandangoa eta arin-arina ikastea da asmoa eta, egoki ikusiz gero, bestelako plaza dantzekin hastea ere aurreikusten dute, beti ere partaideek zer nahi duten entzun eta gero.

Informazio mahaiak Bularreko Minbiziaren Aurkako Egunean

Osasuna » Atzoko egunaren harira AECC elkarteak begizta arrosak banatu zituen Trianguloa plazan jarritako mahaietan.

ERREDAKZIOA

Atzokoa Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen eta hori dela eta, AECCk, Espainiako Minbiziaren Aurkako Elkarteak, informazio mahaiak jarri zuen Tolosako Trianguloa plazan *Nik bularreko minbizia gainditu dut* lelopean.

Mahaietan *Minbiziaren aurkako errezetarik onena prebentzioa* da lelopean minbiziaren prebentziorako 11 «osagai» biltzen dituzten triptikoak banatu zituzten eta baita bularreko minbiziaren kezka zein zalantza desberdinak argitzen dituen liburuxkak ere.

Informazio gehiagorako bi bide eman zituzten: 900 100 036 telefono zenbakia edo www.aecc.es webgunea.



Udaletxean begizta arrosa jarri zuten eta Trianguloan informazio mahaiak ere izan zen atzokoan. R. CALVO

Begizta arrosa

Informazioa banatzearekin batera, bularreko minbiziaren aurkako zeinu bilakatu den begizta arrosak banatu zituen biztanleen artean minbiziaren aurkako elkarteak.

Era berean, Tolosako udaletxearen aurrealdean begizta arrosa handi bat zintzilikatu zuten atzokoan. Lurraldeuseko autobusek, osasun etxeek eta saltoki desberdinek ere kanpainaren irudia erakusgai izan zuten.

AECC elkarteak argitutatukoaren arabera, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan 46 eta 69 urte bitarteko emakumeen %95,3k mamografia kontrola egiten dute eta senitarterekoren batek gaixotasuna izan badu 45 urtera jaisten dute kontrola egiten hasteko adina.

» MINBIZIAREN PREBENTZIORAKO «OSAGIAIK»

- Ez ezazu erre.
- Loditasuna saihestu.
- Ariketa fisikoa egin.
- Fruta, berdura eta barazkien kontsumoa handitu.
- Ez hartu eguzki gehiegi.
- Zorroztasunez bete minbizi eragin dezaketen sustantzien eragina prebenitzeko dagoen legegedia.
- Alkohola edaten baduzu, egunean, gehienez, bi unitate hartu

- gizonezkoa bazara, eta bakarra emakumezkoa bazara.
- 25 urtetik gorako emakume guztiak umetoki-lepoko minbizia saihesteko detekzio goiztiarrarako probak egin beharko lituzkete.
- 50 urtetik gorako emakumeek bularretako minbiziaren detekzio goiztiarrerako mamografia bat egin beharko lukete.
- Hepatitis B birusaren txerto kanpainan parte har ezazu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da


hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Erregistro liburuko orri zuri bat da. Tolosan jaiotzen diren haurrak izan ezik, gainontzeko herrietan jaiotzen diren haurrak, gaztelaniaz erregistratzen dira. E.MAIZ

Tolosan izan ezik, gainerako herrietan haur bat jaiotzen denean, nahitaez gaztelaniaz erregistratu beharra dago. Euskaldunari, jaiotzatik hasi eta heriotzara, hizkuntza eskubideak urratzen zaizkio.

Ezin euskaraz erregistratu

ERREDAKZIOA

Haur bat jaio eta lehenetarik gauza, Udaletxeko Bake Epaitegira edota Erregistro Zibilerako joan eta haurra erregistratzea izan ohi da. Haurrak euskaraz erregistratu ezin direnez, azken asteetan, zeresan handia sortu da. Uemako Imanol Harok eman dizkigu azalpenak eta Behatokiarekin batera, denbora asko daramatela kontu hau bideratu nahian azaldu digu.

Gurean ere horrela dira kontuak. XXI. mendearen egonagatik leku gehienetan ez da posible Erregistro Zibileko paperak euskaraz betetzea. Tolosaldeko 27 herri eta baita Areso eta Leitzan ere, euskararik ez da existitzen. Tolosa da euskaraz erregistratzeko aukera ematen duen tolosaldeko herri bakarra.

Tramite administratiboa da eta bi lekutan egin daiteke: haurra jaio den udalerrian (gehienetan Donostia edota Iruñea) edota gurasoek bizitokia duten herrian. Eta Bake Epaitegian edo Erregistro Zi-

blean erregistratu daitezke. Eskumena berriz, Estatuarena da.

Administrazioarekin askotan gertatzen den moduan, kasu honetan ere borroka egin beharko da aurrera pausak lortu ahal izateko.

Zein da egoera?

Orain dela gutxi arte haurrak erregistratzeko modu bakarra zegoen: erregistro liburua erabiltzea. Liburu horiek gaztelaniaz bakarrik zeudenez edota daudenez, haurrak gaztelaniaz bakarrik erregistratzen dira. 1957. urteko lege batean dago oinarritua. 2005. urtean, lege horren 23. artikulua aldatu zen, gaztelaniaz ez ezik tokian tokiko hizkuntza ofizialetan ere haurrak erregistratu ahal izateko.

Katalunian eta Galizian, erregistro liburu ofizialak dituzte baina

gurera oraindik ez dira guztiz iritsi. 2005. urtean, ordea, lege aitortua dugu euskaraz erregistratzeko eskubidea.

2008ko urtarilean ordea, EAEko 14 barruti judizial buruetan umeak euskaraz erregistratu ahal izateko aukera ematen duen aplikazio informatiko bat ezarri zuten: inforeg-4 izenekoa. Horren jatorrian, Eusko Jaurlaritzak eta Res.es Enpresa Erakunde Publikoak sinatutako hitzarmen bat dago. Horren ondorioz, gaur egun EAEko 14 tokitan haurrak euskaraz erregistratu ahal dira. Horieta-ko bat da Tolosa.

Akordio hark urtebeteko iraupena zuen eta 2008ko abenduan iraungi zen. Geroztik ez dute beste hitzarmenik sinatu. Gaia geldirik dago eta inork ez daki EAEko gai-

nerako Bake Epaitegietan aplikazioa noiz ezarriko den. Hitzarmena berritzeak, aplikazioa zabaltzea ekarriko luke eta udalerriz guztietara iritsiko litzateke.

Eta zer egin aldatzeko?

Hurrengo egun edo hilabeteetan haurra izatekotan egonez gero, Uema (943 26 0372) edota Behatoki (902 194 332) zuzendu beharko da. Hauei, alde aurretik jakinarazi beharko zaie, jaiotzen den haurra euskaraz erregistratu nahi dela.

Lanean dihardu Uemak. Gutxi barru, Uemako Udaletan onartzeko mozioak prestatzen ari dira. Uematik «euskaraz bizitzearen aldeko ariketa praktikoa bat egiteko eta bake epaitegietan eta erregistro zibiletan, haurrak euskaraz erregistratzeko eskaera egiteko» eskatzen dute. Aldaketak etortzekotan, «gurasoen bultzadetatik» etorriko dira.

Udalek ere, aldaketa eman dadin lana egin beharko dute. Arartekoa ere honen gainean dago eta Udaletara iristen diren keza guztiak berari helarazi beharko zaizkio. Dagoeneko eskualdeko guraso batzuk hasi dira eskaerak egiten.

Gaur egun, jaio edota hiltzerakoan hizkuntza eskubideak urratzen dira. Eta baita ezkontzen kasuan ere. Beraz, badago zer egin euskararen alde.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Urriaren 11n, Border Collie arrazako txakurra galdu zen Belabieta inguruan. Norbaitek ikusi badu deitu 644 58 91 24 telefono zenbakira.

LANA

■ **Garbitzailea.** Uzturre garbiketarako enpresak lau langile kontratatu

nahi ditu. Interesatuak bidali argazkidun Curriculumak uzturregarbiketarak@gmail.com helbidera edo deitu 678 99 25 49 telefonora zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Baserrira edo borda.** Baserrira edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu 634 45 9110era.

L Laburrak

Nagore Franco podologoia bihar Alkartasunan

ANOETA ● Hilabetero bezala, Nagore Franco podologoia bihar joango da Anoetako Alkartasuna biltokira. 15:00etan hasiko da bere zerbitzua eskaintzen eta izena eman dutenei dei egiten zaie.

Ipar Euskal Herrira irteera Sagainek antolatuta

ASTEASU ● Sagainek Ipar Euskal Herrira antolatu du igandeko irteera. Bidarrai, Itsasu eta Dantzarinea bisitatuko dituzte. Izena emateko azken eguna bihar da eta 943 69 34 00 telefono zenbakira deituz eman beharko da. 12 urtetik beherakoek 5 euro eta helduek 10 euro ordaindu beharko dute. Igandean 07:30ean aterako da autobusa.

Euskal Herrian Euskaraz lan taldea osatu nahian

VILLABONA ● Azaroaren 27an, larunbatean, Euskal Herriko lehen antzerkizale eguna antolatu nahi dute. Villabonako Euskal Herrian Euskaraz horretarako lan taldea osatu nahian dabil eta dei egiten diete beraiekin parte hartu nahi duten guztiei.

Agenda 21eko herri batzarra egingo dute gaur 19:00etan kultur aretoan

Aduna » Herritar guztiak gonbidatuta daude. Besteak beste, 2007an onartutako ekintza plana jorratuko dute.

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak, gaur 19:00etan Agenda 21ean herri batzarra egingo du udaletxeko kultur aretoan. Ekintza Plana udalbatzak onartu zuela hiru urte pasa direnez, herritarrek dokumentu hori onartu zenetik zein ekintza nagusi gauzatu diren ezagutzea interesgarria da. Ordu eta erdiko iraupena izango du eta herritar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

Honakoa da jorratuko den gai zerrenda: Adunako Agenda 21en prozesuaren deskribapena; Agenda 21en Ekintza Planaren ezarpena (2007-2009); 2010. urtean gauzatzen ari garen proiektuak; eta bertaratuakoen galdera-erantzunak, eta proposamenak.

Informazio gehigarria behar izanez gero, interesa dutenek 943 69 25 71 telefono zenbakira deitu eta ingurumen teknikariarengatik galde dezakete (asteartean goiz eta arratsaldean eta ostegunetan, goizez).

Lizentzia Udal etxebizitza tosatuak

Eskaerak ingurumen, lanpostu eta abarretan egiteko. Erregistro, udalera eta udalera bitarteko. Erregistro, udalera eta udalera bitarteko.

943 670 700 943 606 147

Gaur hasiko da III. Mikologialdia eta igandean erakusketarekin amaitu

Leitza » Leitzako Kultura Elkarrekin antolatuta, egun hauetan mendian bildutako perretxikoak, gero ikusgai jarriko dituzte.

ERREDAKZIOA

Gaurtik aurrera, abian da Hirugarren Mikologialdia. Leitzako Kultura Elkarrekin antolatuta, inguruan jaiotzen diren perretxiko ezberdinak ezagutzeko aukera eskaintzen zaigu.

Ekimenari hasiera emateko, Leitza inguruko mendi eta basoetan zizak nahiz perretxikoak bildutako gonbita luzatzen dute. Gero ostiral eta larunbat arratsaldean, Karrapen bilduko dituzte, eta inguruko adituek zein motakoak diren azalduz, izendatu eta banatuko dituzte. Gisa honetan, aurkitutako espezie guztiak ikusgai jarriko dituzte hor bertan, igande goizean.

Mikologialdia adin ezberdinetako herritarrei dago zuzenduta.

Ostiral eta larunbat arratsaldean, Karrapen jaso eta sailkatuko dituzte perretxikoak

Hori dela eta, egun hauetan, Erleta eskolako ikasleak mikologiarekin lotutako marrazkiak dira egiten egun hauetan. Ondoren, denak bildu eta lehiaketa bat egingo dute. Lanak, perretxikoekin batera,



Igande goizean, egun hauetan, Leitza inguruan aurkitutako perretxiko espezieak sailkatuta jarriko dituzte. I. URRUTIA

ikusgai jarriko dituzte igandean Karrapen, eta onenari tuituazango da.

Juan Mari Barriola, Kultura sailko zinegotziaren esanetan, «betidanik egon da Leitzan, ondokoak eta zizak bildutako ohitura». Horregatik, afizio eta jakintza hau gaztetera transmititzea da Mikologialdiaren helburu nagusietako bat.

Bestalde, gaineratu zuenez, duela urte batzuk lehiaketa moduan egiten zen Mikologialdia. Baina duela bi urte, formatua aldatzea erabaki zuten, eta erakusketa gisa aurkeztea. Antolatzaileak gustura daude herritarren parte-hartzearekin, eta ia zere 100 espezie

ezberdinetik gora katalogatu zituztela nabarmendu zuten.

Perretxiko jangarriak dira, oro har jendeak ezagutzen dituenak: ondo zuriak eta beltzak, ziza horiak, gibel urdinak, txanpiñoak... Baina hauez gain *Amanita Muscaria*, *Esne gorria* eta *Astaputzak* dira jendeak errazen aurkitzen dituenak.

Erakusketarekin batera, dastatzea

Iaz, erakusketarekin batera, perretxikoak sukaldatu eta hauen dastatzea ere egin zuten. Aurten ere, horretarako asmoa dute Kultura Elkartekoek. Baina oraindik za-

lantzak dituzte, egin ahaliko den edo ez erabakitzeko. Izan ere, orain arteko datuen arabera, oro har, perretxiko gutxiari dira ateratzen inguruko mendietan, eta da-

Igande goizean perretxiko erakusketa eta dastatzea izango dira herriko plazan

tozen egunetan ere, eguraldiak horrela jarraituz gero, ez da kolperik aurreikusten. Honenbestez, larunbat arratsaldera arte itxarongo dute, ikusteko, dastatzea egin ahal izango ote den.

Laburrak

Alurr-en argazkiak ikusgai atzotik, Kultur Etxean

IBARRA » Alurr dantza taldeak antolatutako argazki erakusketa ikusgai da egun hauetan Ibarrrako Benito Izaguirre kultur etxean. Bisita ordutegia ondorengoa da, goizean, 10:30etik 13:00etara eta arratsaldetan, 15:30etik 21:00etara.

Mendi Taldeen Eguna joateko, izen-ematea

LEITZA » Beti Gazte elkarteak antolatuta, VIII. Mendi Taldeen Eguna ospatuko da Lesakan. Hara joateko autobusa antolatu dute, eta 07:45ean, Leitzako plazan egin dute abiatzeko hitzordua. Joan nahi dutenek, alde zurretik, Astiz edo Maimur liburu dendan eman beharko dute izena. Horretarako epea bihar amaitzen da.

Lan Onari saria jasoko du Xabi Alonsok hilaren 25ean

TOLOSA » Eusko Jaurilaritzaren Lan Onari saria jasoko du Xabi Alonso futbol jokalaria, Imanol Arias aktorearekin, Maria Luisa Laka euskaltzalearekin, Manu Leginetxe idazle eta kazetariarekin eta Javier Ormazabal enpresaburuarekin batera. Haien lana eta ekimena goretsi ditu Jaurilaritzak, eta Patxi Lopez lehendakariak hilaren 25ean emango die saria.

Hilaren 29an odola emateko aukera izango da

AMASA-VILLABONA » Hilaren 29an odola emateko aukera izango da. Anbulatorioan egingo dituzte ateztatzeak 19:00etatik 21:00etara.

'La cinta blanca' filmak irekiko du aurtengo zinema denboraldia

Leitza » Asteburuan ikusgai izango da Michael Haneke zuzendari alemaniarren lana; ostiral eta igandean izango dira saioak.

ERREDAKZIOA

Aste honetan emango diote hasiera Zinema denboraldi berriari. Emanaldiak ohi bezala ostiraletan 22:30ean izango dira, eta igandean, 19:30ean.

Ikusgai izango den lehendabiziko filma Michael Haneke zuzendariaren *La cinta blanca* izango da. Urtarrilean estreinatu zen lana. Ulrich Tukur, Burghart Klausner eta Steffi Kühnert dira protagonistak.

1913ko Alemanian dago kokatua. Lehen Mundi Gerrak ez zanda egin baino lehen, bere ohiko bi-



'La cinta blanca' filmeko uneetako bat. HITZA

zitzarekin jarraitzen duen herrizka protestantea da hau. Baroiak, enkargatuak, medikuak, emaginak, baserritarrak... denek dute iraganeko istorio bat, eta lotura komun bat: seme-alabak eskolako eta

elizako abesbatzako kide direla. Baina, hainbat gertaera arrarorenkin herritarren lasaitasuna apurtzen hasten da, gaztetxoak gero eta balio absolutuagoen pean, hezteen doazten bitartean.

MUNDUKO SUKALDARITZA

EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO
LEHEN
SUKALDARITZA
BILDUMAREN
4. alea

ALEMANIA • JAPONIA
MAROKO • BREITANIA
INDIA • MEXIKO • VIETNAM
ARGENTINA • LIBANO
ITALIA • TXINA

berriekin
eskaintza
berezia

EGIN ESKAERA
urriaren 29a baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea:
FAGOR
www.fagor.com

Aukerak ezazul
BIZI EUSKARAZ
berria



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ipuin kontalaria

■ **Larraul.** Oihana Etxegibel ipuin kontalaria 17:15ean Liburutegian.

Deialdiak

- **Ibarra.** III. Galtzakomik euskarazko komiki lehiaketa. Gazte eta helduentzat, gai librea. Lanak Galtzaundiren egoitzan utzi behar dira azaroa bukaera baino lehen.
- **Tolosa.** Zezen-plaza auzoko bizilagunek urtero bezala afaria egingo dute azaroaren 5ean. Izen-ematea ohiko lekuetan.
- **Tolosa.** Hilaren 23an bertso-afaria egingo dute lurre elkartean Ando Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusekin. Izen-ematea 943 57 15 32 telefono zenbakian.
- **Villabona.** Urriaren 30etik azaroaren 13ra, Benidormera bidaia antolatu du Biltoki jubilatuek. Izen-ematea, Txermingo egoitza asteartetik ostiralera, 11:00etatik 12:30era.
- **Tolosa.** Haripe jubilatuek irteera antolatu du Lizarrara azaroaren 24ean, Los Arcoseko abiadura zirkuitua bisitatzu. Izen-ematea, elkartean.
- **Zizurkil.** Larraul eta Zizurkilgo jendearen artean Teodoro Herriandorena Ipuin Lehiaketaren IX edizioa antolatu dute. Aipatu herrietako biztanleek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan. Aurkezten diren lanek egile bakarra izan behar dute eta partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ditzake. Lehiaketa bost mailatan banatuko da. A. Maila: 6-8 urtekoena, B. Maila: 9-11 urtekoena, C. Maila: 12-13 urtekoena, D. Maila: 14-16 urtekoena eta E. Maila: 17 urtetik gorakoena. Gaia librea izango da eta erabili beharreko hizkuntza euskara. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu behar dira azaroaren 18a bitartean, egun hau barne eguerdiko 14:00ak baino lehenago Zizurkilgo Udai Bule-

goetan. Lehiaketako oinarriak erakusgarri daude bertan.

Erakusketak

- **Tolosa.** Ignazio Elizaranen erakusketa Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Inestable erakusketa GKO galeriaren eskutik, Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Indonesiako Txotxongilak erakusketa Topic-en.
- **Tolosa.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Lanbroa tabernan. Itziar artista irundarrak eginak.
- **Tolosa.** Erza erakusketa GKO galerian.
- **Tolosa.** Hilaren 30a arte *Hildakak hilibetatik ateraz, duintasanak berreskuratuz* erakusketa Kultur Etxean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarrera, 1.943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Unai Iruinek irabazi du Espainiako Poker Txapelketako 8. jardunaldia

Tolosa » Tolosarrak 33.393 euro etxeratu ditu; bigarren donostiar batek egin du eta hirugarren, aldiz, Bergarako batek.

ERREDAKZIOA

Unai Iruinek irabazi du Espainiako V. Poker Txapelketako zortzigarren jardunaldia.

Joan den asteburuan Donostiako Kurasaalean izandako lehiaketan tolosarrak 33.393 euro irabazi zituen.

Bigarren Ekaitz Landa donostiarrak egin zuen eta hirugarren aldiz, Bergarako Ander Garitanok.

«Hiltzaile» titulua

Unai Iruinen eta Ekaitz Landaren arteko finala oso zirrargarria izan zela diote bertan izan zirenek. 33.393 euroko txekoa eskuratu zuen, baina honekin batera jardunaldiko «hiltzaile» titulua ere



Hiru irabazleak euren sariekin. HITZA

eskuratu zuen, bera izan baita kanporaketa honetan jokalaririk gehien kanporatu dituen, horregatik izango da «hiltzaileen finalean», Valladoliden abenduan izango dena.

Ekaitz Landak ere diru asko etxeratu du, 16.673 euro eta hirugarrenak, Ander Garitanok, 8.348 euro irabazi ditu.

Guztira 205 parte-hartzaile

izan ziren Kurasaalean. Bi egunetan 18 bat ordu aritu dira jokatzeko. Guztira 123.000 euro banatu dituzte Donostian, horietatik 76.000 euro Euskal Herrian geratu direlarik.

Izan ere, hiru sari nagusiek batera Francisco Oyarzabalek 8. egin zuen (3.235 euro), Oier Aizpuruk 11. (2.208 euro) eta Cesar Rodriguezek 12. (2.208 euro).

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5. behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Lanunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5. behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>